

1. XEDEA

Prestazio honen helburua mendekotasuna duten titularrei edo mendekotasuna duten pertsonak ardurapean dituzten titularrei laguntza ekonomikoa ematea da, familia, bizitza pertsonala eta lana kontziliatzea erraztuko dien laguntza ekonomikoko baten bidez.

2. DESKRIBAPENA

Mendekotasuna duten titularrei edo mendekotasuna duten pertsonak ardurapean dituzten titularrei laguntzea datza:

- a. **300€** arteko laguntza titular eta urte bakoitzeko, III. mendekotasun maila duten titularrentzat edo III. mailako mendekotasuna duen eta titularrak bere ardurapean duen pertsona bakoitzeko.
- b. **200€** arteko laguntza titular eta urte bakoitzeko, II. mendekotasun maila duten titularrentzat edo II. mailako mendekotasuna duen eta titularrak bere ardurapean duen pertsona bakoitzeko.
- c. **100€** arteko laguntza titular eta urte bakoitzeko, I. mendekotasun maila duten titularrentzat edo I. mailako mendekotasuna duen eta titularrak bere ardurapean duen pertsona bakoitzeko.

3. BALDINTZAK

Eskaera	BEHARREZKOA.
Nork eska dezake laguntza	75 urtetik beherako titularrak.
Nork jaso dezake laguntza	Mendekotasuna duen pertsona onuraduna bada, eskubidea izateko, La Fundaciónen datu-basean onuradun gisa sartuta egon behar da; hau da, titularrarekin bizi behar da eta, ekonomikoki, haren ardurapean egon behar da. Prestazioa eskatu ahal izateko, titularrak La Fundacióneko titularra izan beharko du prestazioa eskatzeko unean.
Antzinasuna	9 hilabeteko antzinasuna, prestazio hau eskatzen den egunean.

Familian titular bat baino gehiago badago, prestazioa familia unitateko kideetako batek bakarrik eska dezake.

4. EPEAK

Laguntza eskatzeko epeak	01/01etik 12/31ra. Eskabidea presentzialki aurkezteko epea abenduaren 30ean amaituko da, eta internetez aurkezteko epea abenduaren 31n amaituko da (https://www.lafundacion.com/eu/).
Laguntza onesteko datak	Hilero onesten dira hilabete horretan eskatutako laguntzak.

	MENDEKOTASUNA DUTEN TITULARRENTZAKO EDO BEREN KARGURA MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK DITUZTEN TITULARRENTZAKO LAGUNTZA 2021	ISP007-47 Rev: 13 Orr.: 2/2
---	---	-----------------------------------

Laguntza ordaintzeko datak	Prestazioa hurrengo hilaren 10ean ordainduko da, abenduan eskatutako prestazioen kasuan izan ezik, horiek urtarrilaren 31n ordainduko baitira. Ordainketa horiek titularraren kontuan sartu beharreko bankuko transferentzien bidez egingo dira.
Erreklamazio epea	Ordainketa egin eta hurrengo 15 egunetan.

5. INFORMAZIOA ETA ESKATZEKO MODUAK

Laguntza edo informazioa bitarteko hauetako edozein baliatuz eska daitezke:

- presentzialki, Gasteizko Dato kaleko 43.ean ditugun bulegoetan.
- 945 222 900 telefono zenbakian.
- info@lafundacion.com helbide elektronikoaren bidez.
- webguneko formularioaren bidez.
- Gainera, laguntza hau eta beste batzuk gure webgunean kontsultatu eta eska daitezke: www.lafundacion.com/eu/

6. DOKUMENTAZIOA

Prestazioen bidez garatutako jarduerak arautzen dituen prozedura orokorraren eduki osoa aplikatuko da.

- 1.- Eskabidea osorik beteta (La Fundaciónen webgunetik deskarga daiteke, edo bulegoetan bertan eskatu, laguntza aurkeztean).
- 2.- Arabako Foru Aldundiaren mendekotasun egoera baloratzeko ebazpena (mendekotasun maila adierazita, baita eragina duen data eta eragindako pertsona ere).
- 3.- Titularrak laguntza onuradun batentzat eskatzen badu, familia-eroldaren ziurtagiri eguneratua.
- 4.- Titularrarekiko mendekotasun ekonomikoaren egiaztagiria (lan-bizitza, pentsioengatiko diru sarreren egiaztagiria, aurkeztu den PFEZren azken aitortpena), titularrak prestazio hori eskatzen badu honako onuradun hauentzat:
 - Gurasoentzat
 - Anai-arrebentzat
 - 25 urtetik gorako seme-alabentzat

Oharra: titular bakoitzak urtean gehienez 300 euro jaso ahal izango ditu guztira, mendekotasun, hezkuntza eta laneko osasunerako prestazioengatik jasotako zenbatekoak batuta.

La Fundaciónek beretzat gordetzen du egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatzeko eskubidea.